

Donosti'tik, 1969-3n Urriak 4-tan

Agur, ene Jaun guztiz agurgarri horri,

Nola zare? Ongi? Bihotzez eskertzen dautzut zure bi lan hoiak igorri baitautzazu. Ona frango egin daut lan hoiak irakurtzeak, ez nakien hainitz gauza irakatsi dautate-ta. Hor, oraingo Gipuzkeran erran ezin ditezken errantza batzuk badirela jakinen duzu, naski. Ez da erraiten Gipuzkeraz: "Zer dirua ez du ebatsi!" baizik eta: "Zer dirue ez du lapurtu!", edo: (H)orrek lapurtu duen dirua!

Ezta ere: "Baratze hortan bada udare!"

"Baratz ortan bada udaretan!", edo Naparraldera, "Baratz ortan bada udarez!" baizik.

Berebat, hain eder zautzun "ethortzen balitz" hori ere orobat ez-ezaguna da Gipuz-erri huntan. Euskera-zko Aspects'i dagokioten zure lana ere biziki interesgarria izana zaut, nahiz eta laburttoa izan. Beta luzeago euki bazenu, hor ezarri duzuna baino hainitz gehiago ere erran ahal izanen zenukeala uste dut.

Ene esker bihotzekoenekin batera, har itzazu, ene Jaun agurgarri horrek, ene agurrik onenak. Ongi izan.
De Rijk'tar Rudolf'engandik.